ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko azaroaren 18a, astelehena • 133 zk.

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

# EUSKO JAURLARITZA

## LAN ETA JUSTIZIA SAILA

### Arabako Lurralde Ordezkaritza

**DHL Express Spain, SLU enpresak Araban dituen lantokietako hitzarmen kolektiboa**

Ebazpena, Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da 2018-2019-2020-2021 DHL Express Spain, SLU enpresak Araban dituen lantokietako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01100282012013.

AURREKARIAK

2019ko urriaren 10ean aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariek eta ordezkari sozialek, 2019ko irailaren 13an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikuluak, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikuluak –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorriz eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 24a

*Arabako lurralde ordezkaria*
*CARMEN DE CELIS CUEVAS*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**DHL Express Spain SLU enpresaren hitzarmen kolektiboa, Arabako lurralde historikoan dituen lantokietarako, 2018., 2019., 2020. eta 2021. urteetarako**

Hitzaurrea

Aldeek berariaz jasoarazi dute DHL Express Araba Spain SLren aurreko hitzarmena ordezkatzen duela hitzarmen berri honek (erregistro-zk.: 01100282012013).

Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 82. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz, Arabako salgaien errepide bidezko garraio-industriaren sektorerako eta garraio-agentzietarako 2017-2019ko hitzarmen kolektiboan (2017ko irailaren 8ko ALHAO; hitzarmenaren kodea: 01001295011981) eta hori ordezten dutenetan aurreikusten dena aplikatu ahalko da, eta egon litezkeen hobekuntzak errespetatuko dira, aldeek hitzartu dituzten eta hitzarmen honetan garatzen diren baldintzetan.

Ondorioz, hitzarmen kolektibo honetan berariaz erregulatzen ez diren gaietan, Arabako salgaien errepide bidezko garraio-industriaren sektorerako eta garraio-agentzietarako 2017-2019ko hitzarmen kolektiboan eta hori ordezten dutenetan aurreikusten denari helduko zaio, aplikagarria den eta hitzarmen honen 6. artikuluan jasotzen den zuzenbide ordeztaileari kalterik egin gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 13a

**1. artikulua - Alde sinatzaileak**

Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren III. tituluaren babespean, langileen legezko ordezkariek eta enpresako zuzendaritzak sinatzen dute enpresako hitzarmen kolektibo hau. Bada, bi aldeek elkarri aitortzen dizkiote hitzarmen hau negoziatzeko beste gaitasun eta legitimazio.

**2. artikulua - Lurralde-eremua**

Hitzarmen hau DHL Express Spain SLU enpresak Arabako lurralde historikoan dauzkan edo eduki ditzakeen lantoki guztietan aplikatuko da.

**3. artikulua - Langileen eremua**

Arabako lurralde historikoko lantokietan DHL Express Spain SLU enpresarako lan egiten duten langile guztiei eragiten die hitzarmen honek.

Hala ere, beste esparru arautzaile batetik datozen eta gaur egun enpresan dauden langileek aurreko hitzarmen kolektiboetan edo akordio pertsonaletan bermatutako lan-baldintzak edukitzen jarraituko dute, hitzarmen edo akordio horietan jasotzen diren baldintza beretan.

**4. artikulua - Denbora-esparrua, salaketa eta berrikuspena**

Hitzarmen hau 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, ondorio guztiekin, berariaz ezberdin adosten diren gaietan eta artikuluetan izan ezik, eta 2021eko abenduaren 31ra arte iraungo du, ALHAOn argitaratzeko eguna edozein izanik ere.

Hitzarmen honek atzeraeragina duenez, hori aplikatzeak ekarriko dituen atzerapenak gehienez ere hilabeteko epean ordainduko dira, argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Hitzarmen honen iraupena amaitzen denean, automatikoki salatuko da, aurretiko errekerimendurik egin gabe. Hala, hitzarmena amaitu eta hurrengo hilabetean beste hitzarmen bat negoziatzen hasteko konpromisoa hartzen dute bi aldeek.

Indarraldia amaituta, honako hau ordezkatzeko beste akordio bat lortu artean, hitzarmenaren edukia osorik aplikatuko da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**5. artikulua - Osotasunarekiko lotura**

Hitzarmen honetan adostutako baldintzek osotasun organiko eta zatiezina osatzen dute, eta, aplikatzeko garaian, halakotzat hartuko dira.

Eskudun organoak berezkoak dituen ahalak erabiltzen dituenean hitzarmen honetan ezarritako baldintzaren bat onartzen ez badu, hitzarmena ez da eraginkorra izango, eta oso-osorik balioetsi eta negoziatu beharko da.

**6. artikulua - Ordezko zuzenbidea**

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztian, Arabako salgaien errepide bidezko garraio-industriaren sektorerako eta garraio-agentzietarako 2017-2019ko hitzarmen kolektiboan eta hori ordezten dutenetan, DHL Express Spain enpresaren Estatuko Berdintasun Planean edo hori ordezten duen eremu bereko akordio batean, DHL Express Spain enpresaren Estatuko Erretiro Planean edo hori ordezten duen eremu bereko akordio batean, Salgaien Errepide bidezko Garraio Enpresen II. Hitzarmen Orokorrean (martxoaren 29ko BOE, 76/2012 zk.) edo hori ordezten duen eremu bereko akordio batean eta lan-arloko gainerako legedia orokorrean ezarritakoa aplikatuko da ordezko zuzenbide gisa.

**7. artikulua - Etorkizunerako hobekuntzak**

Hitzarmen honen indarraldian, lege-xedapenen edo nahitaezko xedapen konbentzionalen bidez, oro har hartuta eta urteko zenbaketan, akordio honetan hitzartutakoak baino baldintza ekonomiko hobeak finkatzen badira, horiek aplikatuko dira.

**8. artikulua - Berme pertsonala**

Oro har, hitzarmen honetan itundutakoa hobetzen duten baldintza pertsonalak errespetatuko dira.

**9. artikulua - Hitzarmena interpretatzeko batzorde paritarioa**

Hitzarmen hau aplikatzean eta interpretatzean hartzen diren erabaki guztiak ezagutu eta ebazteko, batzorde paritario bat eratuko da. Alde bakoitzeko (enpresa eta langileen legezko ordezkaritza) bazkide batek eta gehienez ere bi aholkularik eratuko dute batzordea.

Edozein ordezkaritzak hala eskatzen duenean elkartuko da batzorde paritarioa, alde horrek deialdia egin eta hamabost laneguneko gehieneko epean. Bileran, jorratutako gaiei eta, hala badagokio, hartutako erabakiei buruzko akta idatziko da. Kideen artean, presidentea eta idazkaria izendatu ahalko dira. Hala egiten bada, bakoitza alde batekoa izango da (enpresakoa bata, eta langileena bestea), eta urtebeteko aldietan txandakatuko dira. Beste aldeari aurretik jakinarazten bazaio, aholkulariak agertu ahalko dira.

* Batzorde honen eginkizun espezifikoak honako hauek dira:

a) Indarreko hitzarmena interpretatzea.

b) Hitzartutakoa betetzen dela ziurtatzea.

c) Aldeek ados jarrita esleitzen dizkioten kontu guztiak jorratzea.

Batzorde horrek irizpena eman eta arauz aurreikusita dagoen bezala jardun dezan, bi ordezkaritzek ados jarri beharko dute kasuak eskudun jurisdikzioaren esku utzi aurretik. Batzorde paritarioak aurreko paragrafoarekin bat eginez bere ardurapean utzitako gatazkak konpontzeko erabakirik hartzea lortzen ez badu, aldeek PRECOren bitartekaritza-bidera jo beharko dute (apirilaren 4ko EHAA, 66/2000 zk.).

**10. artikulua - Soldaten araubidea eta egitura**

Ondoren eta hitzarmen honetan zehazten denarekin bat egingo duen soldata-egitura hitzartua ezartzea erabaki dute alde sinatzaileek.

Soldata-egitura: bi aldeek onartzen dute hitzarmen honetan finkatzen diren ordainsari-araubidearen eta soldata-egituraren kontzeptu guztiak multzoan eta oro har hartuta hobeak direla langileentzat, sektore-mailako legezko araudi konbentzionalekoak baino. Hala ere, erreferentziazko hitzarmen sektorialean plus edo osagarri aplikagarri berriak ezartzen badira, bi aldeek joko dute hitzarmen honen batzorde paritariora, horiek aplikatzeko aukera zehazte aldera.

Hitzarmen honen eraginpeko langileen oinarrizko soldata-egitura langile bakoitzak finkatuta duen ordainsariaren zenbatekoaren araberakoa izango da, eta honela eratu edo antolatuko da, kontzeptu hauetan banatuta:

a) Oinarrizko soldata. Hitzarmen honen soldata-tauletan, lanbide-kategoria bakoitzaren oinarrizko soldata ezartzen da, eta hitzarmen honen 12. artikuluaren (Soldata-igoera) araberako soldata-igoera aplikatuko zaio horri. (14 ordainsaritan).

b) Errendimendu-saria. Hitzarmen honen soldata-tauletan lanbide-kategoria bakoitzerako ezartzen da, eta hitzarmen honen 12. artikuluaren (Soldata-igoera) araberako soldata-igoera aplikatuko zaio. (14 ordainsaritan).

c) Antzinatasuna. Hitzarmen honen 13. artikuluan (Antzinatasuna) ezarritakoaren arabera. (14 ordainsaritan).

d) Ad personam plusa. Soldata-kontzeptu hau ezin da ez xurgatu, ez konpentsatu, eta hitzarmen honen 12. artikuluaren (Soldata-igoera) araberako soldata-igoera aplikatuko zaio. (12 ordainsaritan).

Ad personam plusak, halaber, langileak eduki ditzakeen soldata-alde handiagoak bideratzen ditu; adibidez, kontzeptu hauetan: orga-plusa, pizgarriak, borondatezko esleipena eta borondatezko ordainsaria. Honi ere hitzarmen honen 12. artikuluaren (Soldata-igoera) araberako soldata-igoera aplikatuko zaio.

e) Iraileko plusa. Soldata-kontzeptu hau ezin da ez xurgatu, ez konpentsatu. Hitzarmen honen 14. artikuluan (Iraileko plusa) erregulatzen da plus hau, eta hitzarmenaren soldata-tauletan ezartzen da plusaren zenbatekoa. Era berean, hitzarmen honen 12. artikuluaren (Soldata-igoera) araberako soldata-igoera aplikatuko zaio.

d) Aparteko ordainsari hainbanatua. Hitzarmen kolektibo sektorialaren 25. artikuluarekin bat eginez hainbanatuta abonatzen zen etekinen partaidetzari aparteko ordainsari hainbanatua esango zaio. (12 ordainsaritan).

e) DHL plusa. Ondorio guztietarako kotizatu ahalko den soldata-kontzeptu berri bat sortuko da, eta ezingo da ez konpentsatu, ez xurgatu. Bada, DHL plusa izango da, eta langileak enpresan duen antzinatasunari lotuta egongo da, hitzarmen honen 15. artikuluan (DHL plusa) erregulatzen den moduan. (12 ordainsaritan) Hitzarmen honen 12. artikuluaren (Soldata-igoera) araberako soldata-igoera aplikatuko zaio.

**11. artikulua - Lanbide-sailkapena eta -bilakaera**

Sailkapen- eta bilakaera-gaietan, Salgaien Errepide bidezko Garraio Enpresen II. Hitzarmen Orokorrean xedatzen denari helduko zaio, bai eta, hala badagokio, Arabako salgaien errepide bidezko garraio-industriaren sektorerako eta garraio-agentzietarako 2017-2019ko hitzarmen kolektiboan edo hori ordezten duten eremu bereko akordioetan xedatutakoari ere.

Hori guztia, halere, ez da eragozpena izango taula honetan xedatutakoa aplikatzeko:

| KATEGORIEN ARTEKO BILAKAERA | AZPIRAGOKO KATEGORIAN GUTXIENEZ EGON BEHARREKO DENBORA |
|---|---|
| Administrari laguntzailetik 2. mailako ofizial administrarira | 3 urte |
| Zamalanetako langiletik langile espezializatura | 2 urte |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**12. artikulua - Soldata-igoera**

Aldeek hitzarmenean erregulatzen diren kontzeptu ekonomiko guztiei aplikatzeko soldata-berrikuspen hau hitzartzen dute, ondoren ezartzen diren ehuneko eta kopuruetan, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrerako aplikazio eta ondorioekin.

Hitzarmen honen soldata-tauletan jasotzen da hitzartu diren indarraldiko lau urteen soldata-berrikuspena aplikatzeko modua.

• 2018ko soldata-igoera:

(2017ko kontzeptuen, zenbatekoen eta soldata-taulen gainean) * ehuneko 1,8 aplikatuko zaie hitzarmen honetan erregulatzen diren kontzeptu, zenbateko eta soldata-taulei, kontzeptu hauei izan ezik; izan ere, horiei igoera lineal hau aplikatuko zaie, aipaturiko igoera portzentualaren ordez:

— Iraileko plusa: 65 euro.

2018ko urtarrilaren 1etik sortzen diren atzerapenak hitzarmenaren 4. artikuluaren arabera abonatuko dira.

Taula horiek izango dira 2019ko soldata-igoera aplikatzeko abiapuntua.

• 2019ko soldata-igoera:

(2018ko kontzeptuen, zenbatekoen eta soldata-taulen gainean) * ehuneko 1,7 aplikatuko zaie hitzarmen honetan erregulatzen diren kontzeptu, zenbateko eta soldata-taulei, iraileko plusari izan ezik; izan ere, 70 euroko igoera lineala ezarriko zaio horri, aipaturiko igoera portzentualaren ordez.

Taula horiek izango dira 2020ko soldata-igoera aplikatzeko abiapuntua.

• 2020ko soldata-igoera:

(2019ko kontzeptuen, zenbatekoen eta soldata-taulen gainean) * ehuneko 1,5 aplikatuko zaie hitzarmen honetan erregulatzen diren kontzeptu, zenbateko eta soldata-taulei, iraileko plusari izan ezik; izan ere, 70 euroko igoera lineala ezarriko zaio horri, aipaturiko igoera portzentualaren ordez.

Taula horiek izango dira 2021eko soldata-igoera aplikatzeko abiapuntua.

• 2021eko soldata-igoera:

(2020ko kontzeptuen, zenbatekoen eta soldata-taulen gainean) * ehuneko 1,5 aplikatuko zaie hitzarmen honetan erregulatzen diren kontzeptu, zenbateko eta soldata-taulei, iraileko plusari izan ezik; izan ere, 70 euroko igoera lineala ezarriko zaio horri, aipaturiko igoera portzentualaren ordez.

• Soldata bermatzeko berrikuspen-klausula:

INEk indarraldiko urteetan (2018, 2019, 2020 eta 2021) argitaratzen dituen benetako lau KPIen batura ehuneko 7,6 baino handiagoa bada bakarrik, ondoriozko diferentziala aplikatuko da. Hitzarmen honen soldata-taulak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eguneratuko dira azken urterako, eta taulak eguneratu eta hurrengo hilabetean abonatuko dira atzerapenak.

**13. artikulua - Gaueko lana**

Oinarrizko soldataren ehuneko 25 ordainduko da 22:00etatik 06:00etara bitartean lan egindako ordu edo ordu-zati bakoitzeko.

**14. artikulua - Antzinatasuna**

Bost bosturteko izango dira, eta jauzi bakoitzean ehuneko 5 gehituko zaio oinarrizko soldatari, hitzarmen honen soldata-tauletan lanbide-kategoria bakoitzerako ezartzen diren denborazkotasun, zenbateko eta ehunekoetan.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Aurrekoa bazter utzi gabe, 2008a baino lehenagoko antzinatasun-kontzeptuari eutsi egingo zaio, enpresaren eta langilearen artean aurretik sinatutako banakako akordioetan hitzartutako baldintzetan, eta ezingo da ez xurgatu, ez konpentsatu. 2008a baino lehenagoko antzinatasun-kontzeptuari hitzarmen honen 11. artikuluan (Soldata-igoera) zehazten den soldata-igoera ezarriko zaio.

Halaber, 1994ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko antzinatasuna duten langileei Arabako salgaien errepide bidezko garraio-industriaren sektorerako eta garraio-agentzietarako 2017-2019ko hitzarmen kolektiboaren 23. artikuluan erregulatzen den osagarri pertsonala abonatuko zaie, nominan, antzinatasun gisa. Kontzeptu horri hitzarmen honen 11. artikuluan (Soldata-igoera) zehazten den soldata-igoera ezarriko zaio.

**15. artikulua - Iraileko plusa**

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztientzat ezartzen da iraileko plusa izeneko soldata-kontzeptua. Egiten den lanaldiarekin proportzionala izango da, eta ezingo da ez xurgatu, ez konpentsatu. Urte bakoitzeko iraileko nominan abonatuko da. Hitzarmen honen soldata-tauletan ezartzen da plusaren zenbatekoa, eta hitzarmen honen 12. artikuluaren (Soldata-igoera) araberako soldata-igoera aplikatuko zaio.

**16. artikulua - DHL plusa**

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiei abonatuko zaie DHL plusa izeneko soldata-kontzeptua 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta ezingo da ez xurgatu, ez konpentsatu.

Plusa hamabi hilabetetan abonatuko da, eta hitzarmen honen 11. artikuluan (Soldata-igoera) jasotzen den soldata-berrikuspena aplikatuko zaio.

Zehazki, taula hauetan zehazten dira lanbide-kategorien edo -taldeen eta enpresan egindako antzinatasunaren arabera abonatuko diren zenbatekoak:

| KATEGORIAK | DHL PLUSA (12 ORDAINSARI) |
|---|---|
| 2. mailako trafikoko burua | 120 euro |
| 1. mailako ofizial administraria | 110 euro |
| Tokiko gidaria, 2. mailako ofizial administraria<br>Langile espezializatua | 90 euro |
| Administrari laguntzailea, langilea | 80 euro |

Enpresak DHL plusaren taulan agertzen diren kategoriez bestelako kontrataziorik egiten badu, dagokion DHL plusa esleitzeko bilduko dira hitzarmen honen alde sinatzaileak.

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiei bermatzen zaie DHL plusa jasoko dutela, taula honen arabera:

| LANGILEAK ENPRESAN EGINDAKO DENBORA EDO ANTZINATASUNA | DHL PLUSAREN EHUNEKOA, HITZARMEN HONEN TAULEN ARABERA (12 ORDAINSARI) |
|---|---|
| 0-12 hilabete | DHL plusaren ehuneko 0 |
| 13-15 hilabete | DHL plusaren ehuneko 50 |
| 16-18 hilabete | DHL plusaren ehuneko 75 |
| 19 hilabete edo gehiago | DHL plusaren ehuneko 100 |

16. artikulu honetan jasotzen denaren arabera birbanatuko dira nominan ordaintzen diren soldata-kontzeptuak, hitzarmena sinatzen den egunean kontratatuta dauden langileentzat.

Mugikortasun funtzionalaren kasuetan, indarreko legerian xedatzen denari helduko zaio.

* Iragankortasun-klausula:

Hitzarmena sinatzen den egunean kontratatuta dauden langileei kontzeptu hau egokituko zaie, eta gaur egungo urteko soldata gordinaren zati izango da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**17. artikulua - Lanaldia**

Gai honetan, Arabako salgaien errepide bidezko garraio-industriaren sektorerako eta garraio-agentzietarako 2017-2019ko hitzarmen kolektiboaren 11. eta 12. artikuluetan xedatzen denari helduko zaio.

Aurrekoa bazter utzi gabe, urteko lanaldia astelehenetik ostiralera bitarteko 40 astetan banatuko da, eta urtero sortuko dira gehiegizko egunak.

Hala ere, enpresaren premiengatik, larunbat goizean lan egitea erabaki ahalko da, langileen ordezkaritzari aurretik jakinarazita eta eragindakoekin ados jarrita.

Enpresak lanaldiaren ehuneko 10, gehienez ere, modu irregularrean bana dezake urtean zehar (172 ordu). Ordu horiek ordu arruntzat joko dira ondorio guztietarako. Ordu-poltsa hori lanegunetatik kanpo erabili ahal izateko, langileekin batera erabaki beharko da, edo langileen ordezkariekin hitzartu. Banaketa horrek legez aurreikusitako eguneko eta asteko atsedenaldiak errespetatu beharko ditu nolanahi ere.

Aurreko paragrafoan arautzen den ordu-poltsako orduak erabiltzen badituzte enpresek, idatziz jakinarazi beharko diete orduak egin behar dituzten langileei eta haien ordezkariei, neurria aplikatu baino 5 egun lehenago gutxienez. Salbuespenez, bezeroaren abisuak premiazkoak edo guztiz atzeraezinak badira (behar bezala justifikatuko dira) eta ezinezkoa baldin bada aurretiazko epe horrekin jakinaraztea poltsako orduen erabilera, une horretan beharrezkoa den aurrerapen-denborarekin jakinaraziko da.

Dagoeneko sindikatu-ordezkaritzarekin hitzartutako lanaldiaren banaketa irregularra duten enpresetan, ez da aplikatuko artikulu honetan aipatzen den banaketa irregularra.

| | |
|---|---|
| Erreferentziazko hitzarmen sektorialeko gehieneko lanorduak zati urte arrunteko lanegunak = | lanegun sektorialak |
| Eguneko 8 ordu ken lanegun sektorialak bider urte arrunteko lanegunak = | gehiegizko egunak |

Enpresak eta langileak adostuko dute noiz eta nola gozatuko den gehiegizko egunez, irizpide honen arabera:

1. Gehiegizko hiru lanegun oporraldian gozatuko dira.

2. Gainontzeko gehiegizko egunak, berriz, urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitartean gozatuko dira.

Ados jarri ezean, langileak idatziz eskatu ahalko du ezarritako aldien barruan egun horiez gozatzeko baimena, hirurogeita hamabi ordu lehenago gutxienez. Enpresak nahitaez eman beharko du baimena, baldin eta eskatzailearen lanbide-kategoria eta txanda bereko langileen ehuneko 10 baino gehiago lanera faltako ez badira. Ondorio horietarako, ez dira oporrengatiko eta ordu sindikalengatiko absentziak aintzat hartuko.

**18. artikulua - Lanaldi-zabalpenak (ordu osagarriak)**

Lanaldi partzialeko langileei, unean-uneko legezko gehieneko lanaldia gainditzen ez badute, ohiko lanaldia zabaldu ahalko zaie, enpresak hala eskatzen badu eta langileak onartzen badu. Langile bakoitzari zabaldutako orduen kopuruak ezingo du gainditu ohiko lanaldiaren ehuneko 60, urteka zenbatuta.

Aldi baterako lanaldi-zabalpenak benetan egindako orduen arabera abonatuko dira. Langilearen ohiko orduaren balio berean edo langileari ordu bakoitzeko lanaldiaren eta enpresan egindako denboraren arabera dagokion balio berean ordainduko dira zabalpen-orduak.

Part time kolektiboaren iraileko plusaren urteko erregularizazioa. Urte bakoitzeko abenduan, part time bakoitzaren iraileko plusaren balioa egokituko da, ehunekoetan, guztira egindako orduei dagokienez. Ordu horiek kalkulatzeko, norberaren urteko lanorduak eta egindako ordu osagarriak batuko dira. Ondoriozko kopurua abenduko nominan erregularizatuko da, irailean abonatutako kopurua kendu ondoren.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Lanaldia behin betiko zabalduz gero, langilearen soldata lanaldi berriari egokituko zaio, eta idatziz jaso beharko da, lan-kontratuari eranskina gaineratuta.

Langileen ordezkariei langile horien berri eta zabalpen-orduen kopuruaren berri emango zaie.

**19. artikulua - Oporrak**

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera eta hurrengo urteetan, hitzarmen honen eraginpean dauden eta egongo diren langile guztiek izango dituzte hogeita bost egun balioduneko opor ordainduak, eta, gutxienez, bi alditan banatuko ahalko dira. Zenbaketa horretatik kanpo geratuko dira asteko atseden-egunak. Oporraldia zenbatzeko xedez bakarrik, asteko lanaldia modu berezian banatu arren, asteko lanaldiak bost lanegun eta bi atseden-egun dauzkala balioetsiko da.

Ezarritako urteko oporralditik (25 lanegun), 2 egun jaregin ahalko dira, langileak hala nahi izanez gero.

Enpresak langileak eskatutako opor-egun guztiak esleitu ezin baditu, enpresak eta langileak adosten dituzten egunetan gozatuko dira sobera egindako egunak eta, hala badagokio, oporralditik jaregindako egunak. Ados jarri ezean, langileak idatziz eskatu ahalko du egun horiez gozatzeko baimena, hirurogeita hamabi ordu lehenago gutxienez. Enpresak nahitaez eman beharko du baimena, baldin eta eskatzailearen lanbide-kategoria eta txanda bereko langileen ehuneko 10 baino gehiago lanera faltako ez badira. Ondorio horietarako, ez dira oporrengatiko eta ordu sindikalengatiko absentziak aintzat hartuko.

Bestalde, hala eskatuz gero, langileak oporraldiko ondoz ondoko hamabost egun gutxienez ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean edukitzeko eskubidea izango du.

Oporrak iraungitako urte naturaletan sortuko dira, eta benetan lan egindako denborarekin proportzionalki gozatuko dira.

Langile batek edozein arrazoirengatik oporrak gozatzen hasi aurretik edo oporrak gozatu bitartean baja hartzen badu eta hala egiaztatzen badu, beste oporraldi bat esleituko zaio, bajarengatik gozatu ez duen egun-kopuruan.

Oporren taula esleitu eta argitaratu ondoren lanpostua borondatez aldatzen duten langileek, ahal bada, aurreko lanpostuan esleitutako oporraldiari eutsiko diote, sail berriko zerbitzu normalarekin bateraezina bada salbu. Horrelakoetan, lanpostuarekin bat egiten duen/duten oporraldi berria/berriak finkatuko da/dira.

Enpresara oporren taula argitaratu ondoren sartzen diren langileek sail bakoitzaren premien arabera gozatuko dituzte oporrak.

**20. artikulua - Aparteko haborokinak**

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiek edukiko dute aparteko bi haborokin jasotzeko eskubidea. Bata ekainean jasoko dute, eta bestea abenduan, hilaren 15ean biak.

Honako hauek dira aparteko ordainsari hauen sortzapenak:

a) Ekaineko aparteko ordainsaria: aurreko urteko uztailaren 1etik urte bereko ekainaren 30era bitarteko sortzapena.

b) Abenduko aparteko ordainsaria: urte bereko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko sortzapena.

| | |
|---|---|
| Aparteko ordainsaria = (oinarrizko soldataren 30 egun) | Oinarrizko soldata + errendimendu-saria + antzinatasuna |

Aparteko ordainsariei dagokienez, langileek ezingo dute dirurik galdu aldi baterako ezintasun-aldiengatik.

**21. artikulua - Jaiegunetako lana**

Antolaketa- eta eragiketa-arrazoiak tarteko jaiegunetan edo larunbatetan lan egitea eskatzen duten sailetan, lan egiteko txandak ezarriko dira. Xede horretarako, saileko arduradunak behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko du zenbat langile beharko diren jaiegunean lan egiteko, honen arabera:

1) Enpresak, lan-egutegiarekin batera, sail bakoitzak jaiegunetan edo larunbatetan lan egiteko daukan premiaren urteko taula egingo du, eta langileei aurkeztu, langileek zein egunetan lan egin ahalko duten adieraz dezaten, borondatez.

2) Jaiegunetan edo larunbatetan lan egiteko boluntariorik egon ezean, saileko arduradunak izendatuko ditu egun jakin batean lan egingo duten langileak, horien lanaldia edozein izanda ere. Eta, hurrengoetarako, aurreko jaiegunean edo larunbatean lan egin ez zuten langileak izendatuko dira, txandaketa-ordena hertsian, baldin eta boluntariorik ez badago.

3) Langileen Estatutuaren 37.2. artikuluan, herriko jaiak aipatzen dira; bada, berariaz adierazten da Gasteizko Udalak herriko jaitzat jotzen dituen egunak gozatuko direla Gasteizko aireportuko lantokian.

4) Konpentsazioa: jaiegunetako lana konpentsatzeko bi modu egongo dira, eta langileak hautatuko du bata ala bestea. Halaber, langileak hautuaren berri eman beharko dio bere arduradunari, idatziz, egun horietan lan egin eta gero.

a. A) aukera: jaiegunetan lan egiten duten langileek oporretako egun bat eta erdi gehiago izango dute lan egindako jaiegun bakoitzeko.

Konpentsazioko egun eta erdi hori ezingo zaie aplikatu jaiegunetan lan egin ohi dutenei.

Enpresak eta langileak adosten dituzten egunetan gozatuko dira jaiegunetako lana konpentsatzeko egunak. Ados jarri ezean, langileak idatziz eskatu ahalko du egun horietako batez edo batzuez gozatzeko baimena (jaiegun baten osteko eguna ezingo da eskatu). Enpresak nahitaez eman beharko du baimena, baldin eta eskatzailearen lanbide-kategoria eta txanda bereko langileen ehuneko 10 baino gehiago lanera faltako ez badira. Ondorio horietarako, ez dira oporrengatiko eta ordu sindikalengatiko absentziak aintzat hartuko.

b. B) aukera: jaiegunetan lan egiten duten langileei jaiegunetan lan egindako orduak abonatuko zaizkie (edo zati proportzionala), aparteko ordu baten balioa eta ordu horren balioaren ehuneko 50 hartzen dituen zenbatekoan, hitzarmen honen soldata-tauletan gai honen inguruan jasotzen diren zenbatekoekin bat. Kontzeptu horri hitzarmen honen 12. artikuluan (Soldata-igoera) zehazten den soldata-igoera ezarriko zaio.

Jaiegunetako lanorduak ez dira aparteko ordutzat hartuko.

Langileren batek erregulazio ekonomiko hobea baldin badu, errespetatu egingo zaio.

Kontzeptu horiei hitzarmen honen 12. artikuluan (Soldata-igoera) zehazten den soldata-igoera ezarriko zaie.

**22. artikulua - Lizentziak**

Artikulu honetan jasotzen den taularen arabera erabiliko da lizentzia-eskubidea, aurretik abisatzen eta arrazoia adierazten bada eta ondoren dokumentazio bidez egiaztatzen bada. Erantsitako taulan aurreikusten ez den guztirako, indarrean dauden lan-arloko arauak aplikatuko dira. Halaber, araudi horrek arlo honetako kasuren bat hobetzen badu, horixe aplikatuko da.

Langile batek gaixorik egoteagatik medikuaren kontsultara edo mediku espezialistarengana lanorduetan joan behar badu, enpresak gehienez ere 34 ordu ordaindu emango dizkio urtean horretarako. Langileak, ordea, egiaztatu egin beharko du, medikuaren agiria aurkeztuta. Aurreko muga (34 ordu urtean) gainditzen bada, baimen horretarako hartu den denbora berreskuratu ahalko da.

Aurreko mugatik kanpo geratuko dira enpresaren mediku-zerbitzuan egindako kontsultak eta, garrantzi berezia edukitzeagatik, enpresaren mediku-zerbitzuek berezitzat jotzen dituzten kasuak. Xede horietarako, enpresaren mediku-zerbitzuek inguruabar horiek egiaztatzeko ziurtagiria emango diote langileari.

Halaber, odolkidetasuneko eta ahaidetasuneko lehenengo mailara arteko senideak medikuaren kontsultara laguntzeko erabili ahalko da 34 orduko poltsa. Giza Baliabideen Sailak aztertuko ditu odolkidetasuneko bigarren mailara arteko senideen inguruko eskaerak. Parekotzat jotzen dira ezkontideak eta izatezko bikotekideak.

| ARRAZOIA | IRAUPENA |
|---|---|
| A. Langilea ezkontzea – izatezko bikotekide egitea (hiru urte igarotakoan gozatu ahal izango da berriro; betiere, beste pertsona batekin bada) | 20 egun natural<br>(1. lanegunean hasiko da) |
| B. Seme-alabak jaiotzea (aldi baterako, bi gurasoak berdindu arte) | 5 egun natural<br>(1. lanegunean hasiko da) |
| Odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen gaixotasun larria, istripua, ospitaleratzea edo ebakuntza. (Ospitaleratuz gero edo etxean atseden hartu behar izanez gero, egoerak iraun bitartean edozein egunetan gozatu ahalko da) | 2 lanegun |
| D. Ezkontidea edo odolkidetasuneko gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak edo aitona-amonak hiltzea edo ehorztea | 5 egun natural (1. lanegunean hasiko da) |
| E. Odolkidetasuneko lehenengo mailara arteko senideak hiltzea edo ehorztea | 3 egun natural (1. lanegunean hasiko da) |
| F. Aurreko kasuetan jaso ez diren odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak hiltzea edo ehorztea | 2 lanegun |
| G. Ohiko etxebizitzaz aldatzea | 2 lanegun |
| H. Odolkidetasuneko bigarren mailara arteko senideak ezkontzea | Egun natural bat |
| I. Nahitaezko betebehar publikoak eta pertsonalak betetzea | Beharrezko denbora |
| J. Hezkuntza-eskubide orokorrak eta lanbide-heziketakoak erabiltzea | Beharrezko denbora, legean erregulatzen den moduan |
| K. Azterketak egitea | Beharrezko denbora, legean erregulatzen den moduan |
| * Kasu hauetan, honako hau edukiko da Atik Hra:<br>— egun bat gehiago, probintzia mugakide batera joan behar bada.<br>— bi egun gehiago gainerako probintzietan.<br>— hiru egun gehiago herrialdetik kanpo.<br>Egun hauek lanegunak izango dira C, F eta G letretarako, eta naturalak B, D, E eta H letretarako (1. lanegunean hasita eta jaiegunak zenbatu gabe).<br>* Manu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, ezkontzak sortzen dituen eskubide berberak sortzen ditu izatezko bikoteak. Izatezko bikotetzat hartzeko, dagokion araudian ezartzen den definizioari helduko zaio, eta erregistro edo dokumentu publiko batean jasota egon beharko du.<br>* Egitate eragilearen hurrengo egunean hasiko dira gozatzen kasu bakoitzerako ezarrita dauden egunak, baldin eta langileak lanaldiaren ehuneko 60 egin badu. | |

**23. artikulua - Beste baimen batzuk**

1) 9 urte arteko adingabeei gaixorik egoteagatik arreta emateko, beharrezko denbora edukiko da, aurretik abisatzen eta ondoren justifikatzen bada, absentzia-denbora berreskuratzeko baldintzarekin.

2) Langilearen ezkontidea edo seme-alabak hiltzen badira, aurreko artikuluko lizentzien taulan ezarritakoa bazter utzi gabe, ordaindu gabeko baimena eskatu ahalko da, lanposturako eskubidea gordez, heriotza gertatu eta hiru hilabetez gehienez. Halaber, ezkontidea oso larri gaixotuz gero ere eskatu ahalko da, hura ospitaleratuta dagoen bitartean edo gaixotasunaren tratamendu jarraitua ematen dioten bitartean, eskudun mediku baten txostenaren bidez egiaztatuta, 1148/2011 Errege Dekretuak ezartzen dituen profilean eta betekizunetan oinarrituta (gaixotasun larritzat joko dira denbora luzez ospitaleratuta egotea eskatzen dutenak). Parekotzat jotzen dira ezkontideak eta izatezko bikotekideak.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Ordaindu gabeko hiru hilabeteko baimena gozatu duten langileek aldi hori amaitu baino gutxienez bost egun lehenago jakinaraziko dute lanera itzuliko direla. Baldintza hori bete ezean, behin betiko baja emango zaie.

3) Hitzarmen honen eraginpeko langileek 8 orduko baimena edukiko dute urtean, beren kontuak egiteko. Lehenengo laurak ezingo dira berreskuratu, baina besteak zerbitzu-premien arabera berreskuratu beharko dira. Langileek gutxienez 48 ordu lehenago eskatu beharko dute. Enpresak nahitaez eman beharko du baimena, baldin eta eskatzailearen lanbide-kategoria eta txanda bereko langileen ehuneko 10 baino gehiago lanera faltako ez badira. Ondorio horietarako, ez dira oporrengatiko eta ordu sindikalengatiko absentziak aintzat hartuko. Baimen ordaindu hau ezingo zaie oporraldiei erantsi.

4) Eskatzaileak hala nahi izanez gero, Langileen Estatutuaren 37.4. artikuluak langileei edoskitzeko ematen dien baimena 15 laneguneko lizentzia ordaindu batekin ordezkatu ahalko da. Hala eginez gero, amatasun-bajaren ondoren gozatu beharko da, etenik gabe. Egunak pilatu ahal izateko, beharrezkoa izango da langileak lan egitea adingabea eskubide hori amaitzeko adinera iritsi arte.

**24. artikulua - Doako bidalketak**

Enpresan zazpi hilabete egin ondoren, enplegatu bakoitzak doan erabili ahalko ditu DHL Express Spain enpresaren zerbitzuak, muga hauekin: urtean gehienez ere sei bidalketa egin ahalko dira, eta bidalketa bakoitza 25 kg-koa izango da gehienez.

25 kg-tik gorako bidalketak eginez gero, langileak dituen bidalketetatik deskontatuko dira horiek (25 kg-ren multiplo bakoitzeko, bidalketa bat).

**25. artikulua - Enpresan irauteagatiko sariak**

Langile guztiek edukiko dute enpresan irauteagatiko saria jasotzeko eskubidea, hitzarmen honen soldata-tauletan ezarritakoarekin bat.

Sariok hitzarmen honen soldata-tauletan daude zerrendatuta eta jasota. Kontzeptu horri hitzarmen honen 12. artikuluan (Soldata-igoera) zehazten den soldata-igoera ezarriko zaio.

**26. artikulua - Errelebo-kontratua eta erretiro partziala**

Enpresak nahitaez onartu beharko ditu erretiro partzialerako eskaerak, langileek eskatzen duten legezko ehunekoan; beti ere, legean ezartzen diren betekizunak betetzen badira. Horrelakoetan, beste langile bat kontratatuko da, unean-uneko indarreko legediarekin bat. Aurrekoa bazter utzi gabe, enpresaren estatuko akordioa errespetatuko da, zeina 2013ko martxoaren 26an sinatu zen aldeen artean, eta erregistratu, martxoaren 15eko 5/2013 Errege Lege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.

Langileak lehen adierazitako baldintzetan heltzen badio erretiro partzialari, denbora partzialeko kontratu gisa mantentzen den ehunekoa baimen ordaindutzat hartuko da ondorio guztietarako. Enpresak ordaindu beharko duen ordainsaria kalkulatzean, kontuan hartuko dira langileak jasotzen dituen ohiko ordainsari guztiak.

Erretiro partzialaren modalitate honen legezko erregulazioan aldaketa handiren bat egiten bada, hitzarmenaren batzorde paritarioa erabaki bat hartzeko elkartuko da.

**27. artikulua - Zerga-hobekuntzak**

Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, hitzarmenaren eraginpeko langile guztiek heldu ahalko diote Ordainsari Malguko Planari, irizpide hauetan oinarrituta:

- Ordainsari Malguko Planak eskaintzen duen zerbitzura borondatez eta berariaz atxikiz gero, plan horren zerbitzuekin ordezkatu ahalko da diruaren zati bat, indarreko legedian ezartzen diren mugekin.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

• Planari atxikitzeko, kontratua berritzeko akordio bat sinatu beharko da enpresarekin. Bertan, onuraren xede den kontzeptua, urteko zenbatekoak eta, abian den urtea aintzat hartuta, akordioaren denborazkotasuna jaso beharko dira (kontratua urtero berritu ahalko da).

• Planari atxikitzeak ez du langilearen soldata aldatuko: soldata jasotzeko modua aldatuko da, ez besterik.

• Unean-unean aplika daitekeen zerga-arloko legeria aplikatuko du enpresak. Planaren bitartez eskaintzen diren zerbitzuen zerga-tratamenduan egon litezkeen aldaketek ez diete inolako konpentsazio ekonomikorik sortuko zerbitzu horiek erabiltzen dituzten langileei.

• Langileak, Planaren atxikimenduan baja emanez gero, ezarritako ordainsari-sistemaren arabera dagozkion diruzko ordainsariak jasotzeko eskubidea edukiko du.

**28. artikulua - Aldi baterako ezintasuna**

